

5/13 IRIZPENA

Foru Aldundiek adingabeen adopzioaren arloan jarraitu beharreko jarduna arautzen duen dekretuaren bigarren aldaketa egiteko dekretu proiektuari buruzkoa.

Bilbon, 2013ko irailaren 16an

I.- HITZAURREA

2013ko irailaren 3an Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren idazkia jaso zen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean. Horren bidez, Foru Aldundiek adingabeen adopzioaren arloan jarraitu beharreko jarduna arautzen duen dekretuaren bigarren aldaketa egiteko dekretu proiektuari buruzko txostena eskatzen zen, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ekainaren 27ko 9/1997 Legeko 3.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Irizpena behar duen dekretu proiektuaren xedea arau orokor bat berriro ezartzea da. Arau horren arabera, ezin izango da 44 urtetik gorako aldea egon adoptatzailearen edo bikote adoptatzailearen kide gazteenaren eta adingabearen artean, egokitasuna deklaratzeko unean.

Idazki horren kopia bidali zitzaizen berehala Batzordeko Osoko Bilkurako kide guztiei, beren proposamenak eta iritziak bidal zitzaizen eta horiek bidezko Lan Batzordeari helaraz zekizkion, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen funtzionamendu-araudian ezarritakoaren arabera.

Gizarte Garapeneko Batzordea 2013ko irailaren 12an bildu zen, irizpenaren aurreproiekturako lehenengo proposamena eztabaidatzeko asmoz. Batzordearen bileraren egun berean hurrengo irizpen proiektua onetsi zuen, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Lege berriak arautzen duenaren arabera, eta 2013ko irailaren 16an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko Osoko Bilkurari aurkeztu zaio, horrek aho batez onetsi duela.

II.- EDUKIA

Dekretu proiektuari buruzko testuak hitzaurrea, artikulua bakarra, xedapen iragankorra eta azken xedapena ditu.

Hitzaurrea

Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak haurren eta nerabeen babesaren eremuan adopzioaren administrazio aldeak arautzen dituela aipatu da, eta, lege hori garatzeko, ekainaren 17ko 114/2008 Dekretuaren bidez, Foru Aldundiek adingabeen adopzioaren arloan jarraitu beharreko jarduna arautu zen.

114/2008 Dekretuko III. kapituluak egokitasuna deklaratzeko metodologia eta familia adoptatzailea izateko Legeak ezartzen dituen baldintzak balioesteko irizpideak arautzen ditu, baita deklarazioaren indarraldia eta eguneratzea ere.

Horrela, Dekretuko 11.2.K) artikuluan, haurrak eta nerabeak adoptatzeko egokitasunaren baldintzen artean 3/2005 Legeko 83. artikuluan ezarritakoa kopiatu da: *“Adoptatzaileek adopziogaia behar bezala garatzeko muga izango ez den adina izatea”*.

Horrez gain, egokitasuna balioesteko irizpideak adierazten dituen 12. artikulua n) atalean honako hau ezarri du: *“Interesdunen adina haiek adoptatu nahi dituzten adingabeen adinerako egokia izatea”*.

Adingabeen adopzioan foru-aldundiek jarraitu beharreko jarduna arautzen duen Dekretua aldatzen duen azaroaren 21eko 245/2012 Dekretuak ekainaren 17ko 114/2008 Dekretuko 12. artikuluko 1. paragrafoa n) atala aldatu zuen, adoptatu nahi duten pertsonen adinaren eta adingabe adopziogaien adinaren arteko muga kronologikoa kenduta, eta dena delako Foru Aldundiko lantalde teknikoaren erabakiaren mende utzi zuen bikote eskatzailearen edo pertsona eskatzailearen adinaren eta adoptatu beharreko adingabearen adinaren artean dagoen aldea adingabearen garapenerako oztopo izan zitekeen ebaztea.

245/2012 Dekretua prestatzeko prozesuan, egokitasuna balioesteko irizpideen aldaketaren aurka zeuden alegazioak aurkeztu ziren. Izan ere, uste zuten beharrezkoa zela, adoptatzaileen eta adopziogaien arteko adin-tarteari dagokionez, legez zehaztutako muga kronologikoa egotea.

Foru Aldundiek azaldutako argudio guztien arabera eta adingabearen praktikarako eta goragoko intereserako egokiena den araudi esparrua ezartzeko asmoz, 114/2008 Dekretuko edukien bigarren aldaketa proposatu da. Horrela, arau orokorra ezarriko da berriro. Arau horren arabera, ezin izango da 44 urtetik gorako aldea egon adoptatzailearen edo bikote adoptatzailearen kide gazteenaren eta adingabearen artean, egokitasuna deklaratzeko unean.

44 urteko aldeari buruzko arau hori malgutu egingo da, beharizan bereziak dituzten adingabeak adoptatzeko gogoia agertzen duten adoptatzaileentzat; izan ere, kasu horretan adin-tartea handiagoa izan ahalko da, Foru Aldundiko lantalde teknikoak irizten duenaren arabera.

Xedapen atala

Artikulu bakarrak Foru Aldundiek adingabeen adopzioaren arloan jarraitu beharreko jarduna arautzen duen ekainaren 17ko 114/2008 Dekretuko 12.1.n) artikulua aldatu du.

Xedapen iragankorrak dekretua indarrean sartzten denean egokitasuna deklaratzeko bideratzen ari diren espedienteetako prozedura arautu du; halaber, dekretu hau indarrean sartzten denetik zabalik dauden prozeduretan 245/2012 Dekretuaren arabera lortutako egokitasun adierazpenak baliozkoak izango direla adierazi du.

Azken xedapena Dekretua indarrean sartzeari buruzkoa da.

III.- GOGOETAK

Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legeko arauen (83.2 eta 85.4 artikulua) arabera, ekainaren 17ko 114/2008 Dekretuaren bidez, Foru Aldundiek adingabeen adopzioaren arloan jarraitu beharreko jarduna arautu zen.

Dekretu horretako 12. artikulua egokitasuna balioesteko irizpideak zein diren adierazi du, eta n) atalak honako hau ezarri du: *“Interesdunen adina haiek adoptatu nahi dituzten adingabeen adinerako egokia izatea”*.

Izan ere, egokitasun-ziurtagiria ematen den unean, eskatzaileetako gazteenaren (bikoteak badira) edo eskatzailearen (guraso bakarreko familiak badira) eta adingabearen artean 44 urtetik gorako aldea egon behar ez dela zehaztu da.

n) Interesdunen adina haiek adoptatu nahi dituzten adingabeen adinerako egokia izatea.

Irizpide biologiko normalizatu bati jarraiki, egokitasun-deklarazioaren unean (dagokion egokitasun-ziurtagiriaren bidez egiten da deklarazio hori) eskatzailerik gazteenaren (bikoteen kasuan) edo eskatzailearen (guraso bakarreko familien kasuan) adinaren eta adingabearen adinaren arteko aldea 44 urte izan beharko luke gehienez.

Foru Aldundiaren lantalde teknikoaren irizpideari jarraiki eta adoptatu beharreko haurraren edo nerabearen goragoko interesari begira, alde hori handiagoa izan daiteke 5. artikuluan zehazten diren premia bereziak dituzten adingabeak adoptatzeko prestasuna jasoarazten denean.

Bikotekide batek edo eskatzaileak (eskaerak guraso bakarreko familiek egiten dituzten kasuan) 50 urte baino gehiago baditu, bikotekideen arteko adinean dagoen aldea edo eskatzailearen adina adingabearen garapenerako oztopo izan daitekeen ala ez balioetsiko da. Kasu horretan, irizpide biologiko normalizatu bati jarraiki, adoptatu beharreko haurraren edo nerabearen gutxieneko adin bat ezarriko da.

Adingabeen adopzioan foru-aldundiek jarraitu beharreko jarduna arautzen duen Dekretua aldatzen duen azaroaren 21eko 245/2012 Dekretuak ekainaren 17ko 114/2008 Dekretuko 12. artikuluko 1. paragrafoko n) atala aldatu zuen, adoptatu nahi duten pertsonen adinaren eta adingabe adopzio gaien adinaren arteko muga kronologikoa kenduta, eta dena delako Foru Aldundiko lantalde teknikoaren erabakiaren mende utzi zuen bikote eskatzailearen edo pertsona eskatzailearen adinaren eta adoptatu beharreko adingabearen adinaren artean dagoen aldea adingabearen garapenerako oztopo izan zitekeen ebaztea.

Bestela esanda, aldaketaren arabera, egokitasun hori kasuz kasu baloratu behar zen, 44 urtetik gorakoa ez zen aldea egoteko baldintza kenduta.

Kontsultagai dugun dokumentuari dagokionez, Euskadiko EGABek ezin ditu alde batera utzi ekainaren 17ko 115/2008 Dekretua aldatu duen dekretu proiektuari buruzko 2012ko ekainaren 12ko 10/12 Irizpena eragin zuten gogoetak.

10/12 Irizpenak "Dekretuaren aldaketa, adoptatu nahi duten pertsonen adinaren eta adoptatu beharreko adingabeen adinaren arteko egokitasun irizpidea baloratzeari dagokionez, araudi esparru naturalagoa eta egokiagoa ezartzeko helburua duena" positiboki baloratu zuen, egokitasun irizpide hori berez baztertzeko eta egokitasuna ukatzeko baldintza izan ez zedin.

Dekretu horretan argudiatu zen eta 10/12 Irizpenean adierazi zen proposatutako aldaketa sortu zela, araudia "adopzioaren arloko aldaketa juridikoetara eta sozialetara" egokitu beharragatik eta "adingabeen ekintzaren arloko Europako Hitzarmena (berrikusita) Espainian indarrean sartzeagatik".

EGABen irizpenpean jarri den dekretu proiektua oinarritzen duten arrazoietan honako hau aipatu da: "Aldundiek 12.1.n) artikulua jatorrizko testura itzuli nahi dute", haien ustez ("Aldundiek metatutako esperientzia..."), adinaren legezko muga ez delako inoiz izan faktore baztertzaila eta are gutxiago baldintza baztertzaila baldintzen barnean.

Hala eta guztiz ere, 2012ko aurreko Dekretuan Gobernu bera zen esperientziaren argudioa erabiltzen zuena. Izan ere, "praktikan" hitza adierazten zuen, hau da, esperientziak berak egiaztatzen zuen adinaren muga kronologikoa, ekainaren 17ko 114/2008 Dekretuko 12.1.n) artikulua idatzita zegoen bezala kontuan hartuta, baldintza baztertzaila bihurtu zela azkenean, egokitasun-ziurtagiriaren multzo orokorrean.

Horrez gain, orain kontsultagai dugun dokumentuan ez dira inon aipatzen (eta beraz, ez dira eztabaidatzen) 2012ko aldaketa eragin zuten aldaketa juridikoak eta sozialak, ezta adopzioaren arloko indarreko Europako Hitzarmena ere.

Badirudi Foru Aldundiek aurreko testura itzuli nahi dutela, balorazio taldeen erosotasunerako edo erraztasun teknikorako. Izan ere, horrela irizpide simple bat, adin-muga, alegia, erabili ahalko dute otsailaren 18ko 3/2005 Legeko 83.1 artikulua adierazten dituen eta egokitasuna zehazteko osorik hausnartu behar diren egokitasun baldintzen sorta zabala hausnartzea urratzeko edo saihesteko. Gainera, Legeak jada ezarri du egokitasun-ziurtagiriak hiru urteko balioa izango duela, edozein unetan berrikusteko aukerari kalterik egin gabe.

83. artikulua. Familia adoptatzaileak.

1. Haurrak eta nerabeak seme-alabatzat hartzeko egokitasuna behar da, eta egokitasun horrek betekizun hauek eskatzen ditu:

- a. Bizitzeko behar beste baliabide edukitzea, eta baliabide horiek egonkorak izatea.
- b. Haurraren edo nerabearen arreta bermatzeko moduko osasun-egoera fisiko eta psikikoa izatea.
- c. Adopzioa eskatzen dutenek ezkontzazko edo egitezko elkarte bat osatzen dutela egiaztatzen baldin badute, eskaera egin aurretik gutxienez bi urtetan elkarrekin jarraitasunez bizi izana.
- d. Familia-bizimodu egonkorra egitea.
- e. Familia eta gizarte ingurua haurraren edo nerabearen integrazioarako egokia izatea.
- f. Adopzioa eskatzen duten pertsonen historian ez izatea haurarentzat edo nerabearentzat arriskutsu izan daitekeen gorabeherarik.
- g. Jarreretan malgutasuna erakustea, eta egoera berrietara egokitzeko gaitasuna ere bai.
- h. Haurraren eta nerabearen historia pertsonala eta familiarra errespetatzea eta onartzea.
- i. Lankidetzarako eta konpromisorako jarrera baikorra agertzea.

- j. Familia-unitateko kide guztiek adopzioaren aldeko jarrera edukitzea.
- k. Adopziogaiaren garapen egokirako mugapena izan daitekeen adinik ez edukitzea adoptatzaileak edo adoptatzaileak.
- l. Adopzioa egiteko gogoia erakustea, eta, gogo horretan, haurraren edo nerabearen interes gorenari, haren eskubideen babesari eta eskubide horien garapenaren bermeari lehentasuna ematea.
- Egokitasun-ziurtagiriak hiru urterako balioa izango du, baina edozein unetan berrikusi ahal izango da adopzioa egiteko gogoia agertzen dutenen egoera pertsonala edo familiarra aldatu egiten bada.*
2. Erregelamendu bidez arautuko da foru-diputazioek adopzioaren arloan jarraitu behar duten prozedura.

Amaitzeko, adierazi behar dugu honako hau garrantzitsua dela, harrigarria iruditzen zaigula eta ez dugula ondo ulertzen: "44 urteko aldeari buruzko arau hori malgutu egingo da, beharizan bereziak dituzten adingabeak adoptatzeko gogoia agertzen duten adoptatzaileentzat; izan ere, kasu horretan adin-tartea handiagoa izan ahalko da, Foru Aldundiko lantalde teknikoak irizten duenaren arabera".

Izan ere, ez dugu ulertzen zergatik ez den jotzen egokitzat 44 urtetik gorako aldea, jarraian egokitzat jotzen bada beharizan bereziak dituzten adingabeak adoptatzeko, nahiz eta azken kasu horietan adoptatzailea izateko "gaikuntza" handiagoa izan beharko litzatekeen.

IV.- ONDORIOAK

Euskadiko EGABek uste du ez dela egokia Foru Aldundiek adingabeen adopzioaren arloan jarraitu beharreko jarduna arautzen duen dekretuaren bigarren aldaketa egiteko dekretu proiektua bideratzea. Halaber, uste du egokiagoa dela egungo testuari eustea.

Bilbon, 2013ko irailaren 16an

O.E.Batzordeburua
Juan María Otaegui Murua

Idazkari nagusia
Francisco José Huidobro Burgos